



Ekonomia Bultzatzeko, Merkataritzako,
Ostalaritzako eta Turismoko Zinegotzigoa
Concejalía de Impulso Económico,
Comercio, Hostelería y Turismo



Donostiako Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzigoak eta Gipuzkoako Merkataritza Federazioak hitzarmena sinatu dute merkataritza eta enplegua sendotzeko helburuarekin

Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzigoaren (Donostiako Sustapena) eta GMFren arteko lankidetzak hitzarmena sektorean lehiakortasuna bultzatzeko eta kalitatezko enplegua eta berrikuntza sustatzeko asmoarekin sortu da. Berrikuntza gisa, aurtan abian jarriko da Diseinatzaileen Kornerra proiektua, eta, era horretan, bertako hamar diseinatzailek toki bat izango dute beren produktuak hiriko saltoki ezberdinetan erakusteko. Hitzarmena 25.000 eurokoa da.

Hitzarmena **Donostia 2016** programaren barnean kokatzen da. Donostiako Sustapena hiriko garapen ekonomikoaz arduratzen da, eta sozietatearen helburuetariko bat da, **iraunkortasun eta berrikuntza** irizpideak kontuan hartuta, tokiko merkataritza bultzatzeko politikak eta jarduerak sustatzea, lehiakortasunari euste eta hobetze aldera, gero eta polarizatuagoa eta globalagoa den merkatuaren aurrean. Era horretan, **egitura komertzial lehiakorra eta iraunkorra** bultzatzen du, bertan bizi direnen eta kanpotik joaten direnen premiak asetzen dituen.

Gipuzkoako Merkataritza Federazioak hiriko merkataritza elkartuaren %70 ordezkatzeko du, eta Donostian 616 bazkide ditu. Sustapenarekin batera egiten du lan merkataritzaren lehiakortasuna hobetzeko, eta, modu horretan, merkataritza-sektorearen profesionaltasuna eta posizionamendua aktibatzeke era guztietako ekintzak garatzen eta zuzentzen ditu.

Ekonomia Bultzatzeko zinegotzia den Ernesto Gascok ondorengoa nabarmendu nahi izan zuen: “Federazioarekin hitzarmen espezifikoak sinatzea sektorearekin zuzenean lan egitearen aldeko apustua da, saltokiak hobetzeko, lehiakortasunaren eta kalitatezko enpleguaren alde eginaz”. Era berean, honako hau gehitu zuen: “sektoreak eskari argia egiten du: ehun berritzailearen aldeko apustua egitea, ekimenezkoa, auzoetan merkataritzaren irudia birsortzeko eta kontsumoari bertan eusteko”.



Hiri berritzailea
Ciudad innovadora

fomentosansebastian.eus

Hitzarmenaren helburuak honako jarduera-eremu hauen inguruan eratzen dira:

- **Sektorean kontratatzea bultzatzea:** enplegua sortzea eta finkatzea sustatzea eta proiektuaren barnean jende gaztea kontratatzea bultzatzea bereziki, trebetasun eta gaitasun profesionalak hobetzearen, Gazteen Bermea Planeko Jabe Izan programaren bitartez.
- **Ekintzailetza:** ekintzaileek merkataritza-sektorearekin lotuta dituzten proiektuak garatzea bultzatzea, aholkularitza aditu espezifikokoaren bitartez.
- **Lehiakortasunaren hobekuntza eta berrikuntza:** negozio-aholkularitza tokiko enpresa-proiektuentzat, bereziki izaera berritzailea dutenak.
- **Diseinatzaileen eta merkataritzaren arteko lankidetzarako estrategiak.** Diseinatzaileen hamar kórner jarriko dira abian hiriko saltoki ezberdinetan, diseinatzaile emergenteek beren bildumak erakuts ditzaten.
- **Tokiko produktuak bultzatzeko estrategiak.** lazko esperientziarekin jarraitze aldera, tokiko produktuekin konpromisoa hartutako 20 saltoki berri sartzea bultzatuko da, hirian tokiko produktuen kokapena hobetzeko eta saltoki bereizteko asmoarekin.
- **Enpleguaren kalitatea.** Donostiako Sustapenak enpleguaren kalitatea aztertzeke sektorearen gaineko azterketa egingo du. Horrez gain, gai horren inguruan sentsibilizatzeko eta gaia hedatzeko jardunaldia antolatuko du, eta, modu horretan, enpleguaren kalitateari buruzko jardunbide egokiak eta kasu arrakastatsuak aurkeztuko ditu.
- **Kultur Hiriburutza 2016 Harrera Plana.** Merkataritza-establezimenduek online prestakuntza egitea bultzatuko da.
- **Sustapen sektoriala Puntu Denda gunean.** Gipuzkoako Merkataritza Federazioaren presentzia bultzatuko da Puntu Dendan, sektorea sustatzeko eta sektorearen lehiakortasuna hobetzeko helburuarekin.



Hiri berritzailea
Ciudad innovadora

fomentosansebastian.eus